

PRENTSAURREKOAREN AURKEZPENA

Jose Miguel Ayerza. Adegiko Zuzendari Nagusia
2024ko maiatzaren 29a. Adegik.

Egun on eta ongi etorri gure Urteko Batzarraren eta Enpresa Egunaren bezperan egiten dugun prentsaurreko honetara.

Ohi bezala, enpresei egin diegun Koiunturari buruzko Inkestaren emaitzak aurkeztuko dizkizuegu, eta egoera ekonomikoari eta haren bilakaerari buruz egiten dugun analisia helaraziko dizuegu.

Hasteko, esan behar dizuet, inkestaren datu nagusiak ikusita, enpresek eutsi egiten diotela urtarrileko emaitzekin alderatuz, baina distira gutxiagorekin. Zehazkiago, hauek dira inkestaren ondorio nagusiak.

Hamar enpresatik zortzik uste dute beren merkatuak normaltasun- edo berraktibazio-egoeran daudela. Fakturazioari dagokionean, batez beste % 1,6 hazi da eta eskaeramaila % 0,7 jaitsi da.

Ekoizpen-ahalmenaren erabilera berriz mantendu egin da aurreko hiruhilekoaren aldean hamar enpresatik ia zortzitan. Plantillei dagokionez, enpresen % 88k plantillari eustea edo plantilla handitzea aurreikusten dute.

Inkestarekin amaitzeko, enpresen kezka nagusiak: lehendabizikoa, lan-kostu handiak eta soldata-igoerak, bi enpresatik batentzat da kezka.

Bigarrena langile kualifikatuak kontratatzeke zailtasuna, enpresen %44rentzat da arazoa. Hirugarrena: nazioarteko ekonomiaren ahultasuna, kezka da enpresen %33,5entzako.

Laugarren eta bostgarren postuan hamar enpresetatik hirurentzat da kezka, salmenten errentagarritasunaren jaitsiera eta absentismoa.

Absentismoari dagokionez, , apur bat apaldu da urtarriletik hona, baina esan behar da, 15 puntu baino gehiago egin duela gora kezka honek, joan den urtearekin alderatuta. Gehien handitu den kezka da.

Ekonomiaren eta enpleguaren bilakaerari dagokionez, Adegik 2024rako aurreikuspenei eusten die: Gipuzkoako Barne Produktu Gordinaren hazkundea % 1,0 eta % 2,0 artekoa izango da, eta enpleguak, berriz, portaera sendoa izango du eta 3.500-4.500 enplegu sortuko dira.

Enplegua sortzeko aurreikuspen hori itxaropen-mezu bat da, eta aukera bat, gure gazteentzat.

Adegiren "Gipuzkoako enplegu-beharrak eta lanbide-profilak 2024" txostenaren arabera, enpresen % 80k zailtasunak ditu behar dituen lanbide-profilak aurkitzeko. Konpainiek, batez ere, teknikari zientifikoak, produkzio-teknikariak eta erdi-mailako arduradunak behar dituzte.

Paradoxa bat dugu: enpresek behar dituzten profil profesionalak ez datoz beti bat gazte askok aukeratzen dituzten ikasketekin. Aukera hau aprobetxatu nahi dut, gazteei mezua helarazteko: zer ikasiko duzuen aukeratzera, ahal den neurrian, enpresek zer eskatzen duten kontuan har dezazuela. Gainera, azpimarratu nahi nuke Gipuzkoako lan-baldintzak, soldatak barne, Estatuko onenen artean daudela.

Soldatei dagokienez, gogoeta hauek partekatu nahi ditut. Lehenik eta behin, langileek jasotzen duten soldatari % 30eko kostu gehigarria gehitu behar zaio, enpresaren konturako gizarte-kotizazioengatik. Gainera, kotizazio horiek Europako handienetakoak dira, eta azken bi hamarkadetako erritmo handiengan hazi dira.

Bestalde, soldata-alde handiak daude sektoreen artean. Horrela, Papera, Metala edo Eraikuntza sektoreetako batez besteko soldatak Garbiketak, Larruzko Merkataritza edo Ehungintzako Merkataritza sektoreetakoak bikoizten dituzte. Alde bera dago gazteen soldatetan.

Gainera, titulazioen artean aldeak daude.

Eta, azkenik, ez da ahaztu behar Gipuzkoako enpresen % 94k hamar langile baino gutxiago dituela, eta horrek zailtasunak sortzen dizkiela korporazio handiekin soldatetan lehiatzeko.

Lehen esan dudan bezala, Gipuzkoako lan-baldintzak, soldatak barne, Estatuko onenen artean daude. Baina badira gure gazteek beren bizi-proiektuak garatu ahal izateko beste faktore batzuk ere, hala nola etxebizitzaren eskasia eta garestitasuna, eta kreditua lortzeko zailtasuna.

Etxebizitza-eskaintzaren eskasia dela eta, prezioaren maila altua da, eta, ondorioz, gazteek ezin dute etxebizitzarik erosi, etxebizitza horren prezioagatik eta kreditua eskuratzeko zailtasunengatik. Denok dakigu orain, beste garai batzuetan ez bezala, ez dela krediturik ematen etxebizitzaren % 100aren kostuarentzako, eta, gainera, interes-tasak azken urteetako mailarik altuenetan daude.

Beraz, administrazio, enpresa, kreditu-erakunde eta hezkuntza-ekosistema guztien baterako zeregina da gazteei beren bizi-proiektuak gauzatzeko bideak ematea. Eta denok batera arraun egin beharko dugu.

Lanean jarraitu beharko dugu enpresak tamainan, produktibitatean eta lehiakortasunean haz daitezen; lan egin beharko dugu konpainien lehiakortasuna hobetuta soldata hobeak ordain ditzaten; gazteek lan-baldintza hobeak eskaintzen dituzten enpleguak (soldatak barne) lortzeko aukera ematen dieten titulazioak ikastea aukera dezaten; estatuko, erkidegoko, foru eta udal administrazioek etxebizitza eskaintza handitzeko txoke-plan bat abian jar dezaten premia, eta, azkenik, kreditu-erakundeek gazteei kreditua eskuratzen lagun diezaieten, besteak beste.

Denok batera arraun egin beharko dugu arazo horri irtenbide egokia emateko.

Amaitze aldera, eta beste kontuetara etorri, dakizuenez, bihar egingo dugu Adegiren Batzarra, eta Presidetzia berria eta Kontseilu Errektorea aukeratuko ditu. Halaber, Enpresaren Eguna ospatuko dugu. Horri buruzko informazio zehatzagoa duzue prentsa-oharrean.

Mila esker.